

Justizia

Dinamika honen bidez, baliabide eta aukerak gizonen eta emakumeen artean banatzeko orduan dauden injustiziak ikusiko ditugu.

Jarduera hau egiteko, lan bat jarriko diegu ikasleei, gelan bertan egiteko, ahal izanez gero taldeka jarrita, ez bailitzateke egokia izango puntuazioak pertsona zehatzekin lotzea. Jarduera egin ondoren, puntuazio faltsuak eman taldeei; ahal izanez gero, sekulako injustiziak eginez. Utzi neska-mutilei horren inguruan beren iritzia adierazten.

- Bidezkoa al da taldeak horrela baloratzea?
- Nola sentitu zarete zuen taldearen puntuazioa zein den jakitean?
- Denak baldintza beretan aritu zarete? Orduan, zer gertatu da? Zergatik ez da bidezkoa izan?

Jarduera honen zergatiak azaldu ondoren, erakutsi lan berbera egiteagatik gizonen eta emakumeek jasotzen duten soldaten artean dagoen ezberdintasuna erakusten duen grafikoa, ohar daitezen ez dela bidezkoa. Emakumeek zuzendari-postuetan (martxo) eta parlamentuetan (maiatza) duten ordezkartasun hausturako ere balia dezakegu aukera.

- Diskriminazio horrek ba al du jardueran ikusitakoaren antzik?
- Bidezkoa iruditzen al zaizue halako lan-diskriminazioa?

Jarduera honetako gogoetek eta ondorioek klipmetraje baten gidioa egiteko oinarri gisa balio dezakete.